

## Ekintza agenda

<b>SAGUZAR GAUA:</b> Erakusketa + detekzioa Udaletxean	 <b>Irailak 13</b> 19:30
<b>Irailak 14</b> 19:30 	<b>ERDOYIK-P TALDEAREN KONTZERTUA</b> Ostatuan
<b>HERNIORA IRTEERA</b> Izen-ematearekin	 <b>Irailak 15</b> Oinez: 07:00 Autoz: 09:30
<b>Irailak 21</b> 11:30 	<b>SAGARDO TXAPELKETA</b> Izen-ematearekin
<b>BERTSO AFARIA</b> Tiketak salduko dira	 <b>Urriak 4</b>
<b>Urriak 18</b> 	<b>ZTANDAP BAKARRIZKETA</b>
<b>SAN MARTIN JIAK</b>	 <b>Azaroak 8-11</b>



### Aramako Udala


Iriarte 2 – 20248 Arama (Gipuzkoa)  
943 88 07 39 | udala@arama.eus



Arama zaitetz aldizkaria  
21. alea | Iraila

# Martxan berriz ere!

Oporrak amaiturik, berri eta ekintza gehiagorekin gatoz!



## IDI-PEST jaialdi arrakastatsua

Uztailaren 12an IDI-PEST jaialdi arrakastatsua izan genuen herrian. Bertan Sukena talde oñatiarra eta Xiberoots xiberutarra izan genituen. Apustu handia egin zuen herriak ekitaldi honen alde eta jendearen erantzuna bikaina izan zen, bai antolaketan laguntzen aritu zireneka zein ikustera etorri ziren guztiena. Eskerrak eman beharrean gara, guztioi.

Edonola ere, era guztietako kultur ekintzak antolatu ahal izateko, urtean zehar lanean arituko den lantaldea beharrezkoa dugu. Hori dela eta, Gaztaintxotako bileratara gonbidatzen zaituztegu berriz ere. Laister hurrengo urteko plangintzarekin hasiko gara, IDI-PEST 2025 tartean...

**ANIMATU!**

## Udala herriko basoetako egurra ateratzen ari da.

Aramako udalak maiatzean herriko basoetan zeuden pinudiak lizitaziora atera zituen, bertako egurraren aprobetxamendua lortzeko.

Salmenta honetatik udalak 40.200€+BEZ jasoko du. Diru hau herriko lurretara bideratuko da, hauen garbiketa, landaketa eta egokitapenerako. Era berean, lurrak erosteko plangintza abiatuko du udalak, egoera txarrean egon daitezkeen basoak berreskuratzeko.



## Sagardo txapelketa

Iaz bezela, Irailaren 21ean sagardo txapelketa izango dugu herrian. Parte hartzeko izena eman beharko da 686697715 telefonoan, irailak 18rako. Parte hartzeko baldintzak:

- Mota bereko 6 sagardo botila ekarri, Irailak 20 baino lehen. Sagardo botilek ez dute inongo etiketa edo identifikaziorik izan behar. Etxean egindakoa zein sagardo komertziala izan liteke.
- Izen ematen duenak txapelketan epaile modura parte hartuko du.
- Sagardo probaketarako mokadua egongo da.
- Irabazlearentzat saria egongo da (etxean eginiko sagardoa onena ere aukeratuko da)

## Herniora irteera

Irailaren 15ean Herniora egingo dugu irteera. **Oinez** joan nahi dutenak **07:00etan** elkartuko dira udaletxean. **Autoz** joan nahi dutenak berriz, **09:30ean** elkartuko dira, Trintxeratik Herniora oinez igoz. Irteera eta autoak antolatzeke, izen-ematea egingo dugu ohiko bideetatik: whatsapp bitartez (613638732), telefonoz 943880739 edo Udaletxean bertan irailaren 12rako.

